

1999.-2000 J.Karlurtea DBH(34)
J. Sana
Guara Arriobarren Aramburu
31770 leaka
948/63 72 96.
Tokioa 841 - Bera

MANUEL ARAMBURU AMERIKETAN

Arratsaldeon, ni Manuel Aramburu naiz lesakarra, Uharteko baserrikoa eta Lesakan bizi naiz. 67 urte ditut eta Lesakan bizitzen jarraitzen dut.

Gogoratzen dut bost urte nituelarik nola hasi zen gerra. Gizon bat gure aitarengana joan eta zera esan ziola " gerra hasi duk Esteban, hara espero genuena iritxi duk". Une haretan gure aita gure errotako kanalia garbitzen ari zen. Horregatik gogoratzen dut nik oso ongi gizon harek nola esan zion gure aitari gerrako gertaera hura. Gogoratzen dut, nola gure aita eta beste batzuk joaten ziren behiak eta konboiak Aritxulegira, izan ere handik honat zegoen frentia Oiartzun aldean, oso gogorra zen eta zaurituak Lesakara ekartzen zituzten. Karruetan ekartzen zituzten, batzuk zaurituak eta besteak berriz, hilak.

Gerra bukatutakoan nik 9-10 urte nituelarik etorri zen " batallon de trabajadores" eta orduan Lesakatik Oiartzunara bide edo karretera egin zuten. Hor soldadu asko aritu ziren lanean. Hoiei "gorriak" edo deitzen zieten (ez dakit guk ez genuen politika askorik ulertzen) eta handikan etxera bidali zituzten. Beno, orduan hasi ginen gu eskolan (ez zen askorik ikasten), maixu bat bagenuen Don Luis Pellejero eta bi maixurekin ibili ginen ikasten. Airin ibiltzen ziguten joka (esaten dudan guztia eskas izanen da) ni behintzat ez nintzen oso ernia izaten, izan ere ez nuen ezer ikasi (horregatikan geratu naiz naizen bezalakoa). Horregatik nik ez diot eskolari maitasun handirik izandu. Izugarrizko palizak ematen zizkiguten maixu haiek nahiz eta gu ez ginen oso onak izanen; nire ustez ez genuen hainbesteko gaiztakeria handirik egiten. bueno baserrik eskolara, hau da, herrira oso urruti ez bazen ere distantzi polita bazen, bi kilometro eta gehixeago.

Behar bezalako arroparik ez genuen izaten eta negu partean behintzak izugarrizko hotza jasaten genuen. Gainera oinetakorik ere ez genuen eta eskolara ez joanez gero multa ematen ziguten, eta aita eta ama gaixoak multak ezin ordainduz jarduten zuten. Orduko aurrerapenako horiek ziren. Gainera eskolara joateko ez genuen mediurik izaten. Bertan, izugarrizko palizak jasotzen genituen, bost behatzak jarri eta erregelarekin goitik behera jotzen ziguten. Gero beste makil luzeago batzuekin burutik behera jotzen ziguten, baina oso fuerte. Nik ez dakit zer pentsatzen zuten, mutikuk zenbateko aguantia izanen zuten. Denak iziturik edukitzen ziguten. Garai haietan eskolari baino garrantzi handiagoa ematen zioten dotrinari eta apaizak ere han egoten ziren beti gelditu gabe. Apaizak maixuak baino gaiztoagoak izaten ziren. Nahiz eta gu pixkat gaixtotuak izan dagoeneko izugarrizko zapletakoa eman eta garrazika bidaltzen ziguten etxera buru guztia markatuta makilakin.

Bueno baserriko gure bizia izaten zen, hiru anai izaten ginen Fidel, David eta Manuel eta ez dakit ni nintzen gaiztoena baino, nik ere ez nuen barkatzen, ni gaztea izan arren gogor egiten nion. Hirurek joka aritzen ginen oso gogor. Noski azkeneko ni ateratzen nintzen galtzen, ni bait nintzen txikiena. Eta horregatik baserriko bizitza horrelakoxea izaten zen. Bueno gaiztoa nintzen bai ni ere aizkora txiki bat hartu eta atearen eskinak hausten nituen eta baita eskaletako baloistrak ere. Etxean denak ematen ziaten errixtan eta amautxi eta atautxik ere bai horrelako gaiztakeriarikan ez egiteko. Ta hortik aintzinerara aitag ere bai. Egun batean anaia zaharrena mutiko koxkorra egina zenean 16-17 urterekin, zigarro bat fumatzen harrapatu ziten eta izugarrizko paliza eman ziten. Gauz hartaz ongi gogoratzen naiz. Nik ez dut inoiz fumatzen ikasi ta ordun nik 9-10 bat urtekin lagun batek eman zidan.

Gauza horiek denak, gerra ondokoak dira. Ni dagoeneko mutiko kozkorra egina ba aitarekin batera errotan lancan hasi nintzen. Guk errota izaten baitugu beti. Aita baserrira etorri eta ni errotan geratzen nintzen. Ordurako neskei xirriak egiten hasiak ginen. Astoa zakuarekin ekartzen zuten eta asto gainean zakua lotzeko aitzakian taka neskari xirria egin eta batzuri gustatzen zioten eta bertziri ez eta soka gainera botatzen beste aldera gainetikan ttittiak ukitu eta. Errotek orduan oso éxito handia izaten zuten ez baitzegoen ogirikan. Ta Gipuzkoan errotak itxiak zeudenez Hernanitik ta denetatik etortzen ziren gure errotara eta Arantzara eta baita besteetara ere. Errotek orduan, urarekin ibiltzen ziren behean azane handi bat erraten geniona izaten zuten eta urak azane hura jotzen zuen eta urak ematen zion indar harekin ibiltzen zen gohiko harria. Harri bat geldirik egoten da eta bestea ibili egiten da. Ibiltzen dagoen harek beste geldirik dagoen haren kontra jotzen du artoa. Hirintzen du. Orduan ogirik ez zen izaten eta harekin egiten genuen. Aitak erakutsi ziten niri errotazaiko haretan ez gunun aunitzik ikasi bainan behintzat ikasi genuena hortikan ikasi genuen.

Errotatik aparte baserrian haritzen ginen lanean, dagoeneko mutiko kozkorrak eginak ginen eta nonbaitikan bizi behar zen. Txerriak ere mendira ibiltzen genituen, ezkurra izaten zen baita bagatxa bagoak ematen zuena ere. Gaztaina ere izaten zen urte gehienetan. Ardi batzuek ere izaten genituen guk Piperla, Artikutzako muga eta mendi horietan ibiltzen genituen. Artikutzara sartzen ziren eta han Artikutzara eramaten zituzten preso eta handik ateitzeko multa ordaindu beharra zegoen eta handikan goitira ekartzen genituen.

Bueno ta gero etxetikan lanin ere hasi ginen mendian. Bagoa botatzen zuten ta ikatz txondorra egiten genuen. Ni hartan ere urte pare batez ibili nintzen. Neronek ez nekien ikatza egiten baina laguntzen aritzen nintzen eta sos batzuk ematen zizkiguten.

Asko zekiten gizonak ziren. Gero besta batzuk egiten genituen sos batzuk irauzten genituen ta orduan ostatutan hasi ginen oso harroturik. San Ferminak izaten genituen, herriko bestak ta auzoan ere Txakan deitzen diogun ermita txiki bat bada eta hor San Fernando egunean egiten genuen sekulako besta. Hura izugarrizkoa izaten zen adin hartan gu gazteak bait ginen. Sos batzuk baziren baino etxera ere ekarri behar izaten ziren diru batzuk bestela etxeko aita eta amak zer egin behar zuten. Ordun edan ere egiten genuen pixka bat. Herriko bestetan izaten ziren xexenak edo petizuk deitzen ziotenak haien aurrean ere ibili ohi ginen, guk uste bai izugarriak ginela bai baina egun batin batek hartu ziten eta hautsi ziten galtza eta etorri behar izan nuen etxera. Etxean ez dakit zer nolako galtzak izango nituen bainan amak errietan eman ziten fuerte. Aitak berriz, ez ziten begiratzen ere ez dakit zenbat egunez hagitz haserre zen gu han ibili ginelako, baina zer nahi zuen adin haretan guk egitea? Herrira joan ezkerro moxkortu ere pixka bat egiten ginen.

Gure errotatikan baserrira, Uhartera bidaxka mehar bat izaten zen, han ez zen karro bidea izaten, karro bidea bertze tokitik izaten zen bueltan gohitik. Oinez ibiltzeko bidea txarra izaten zen. Egun batean, errotako kanalean kilometro eta erdi batekoa errotatik baserrira moxkortua etorriko nintzen eta bidean espartzina galdu egin nuen, eta ezin nuen harrapatu. Etxera joan nintzen eta hurrengo goizean aita goiz jeiki eta errotara zioelarik espartzina harrapatu zuen. Espartzin hura nork gadua zen galdetzen zuen eta neria izaki espartzina ukatzerik ez nuen. Bat nuen falta eta berriz ere hurrengo egunean besta egitera joateko beharko nuen. Besterik ez nuen izanen.

Igantzin bada ermita bat San Juan izenekoa eta San Juan egunin egiten da izugarrizko besta. Joaten ginela oroitzen naiz kordionak ta izaten dire Gipuzkotik ta hagitz jende aunitz ibiltzen da ta gu ere han ginen. Izaten da ardua ta dena saltzeko eta bokadilo batzuk jan eta harrotuk ere bai. Gero han behetik gora neska batzuri laguntzera edo, iha horduko hasiak ginen fuerte 20 urte inguru izanen genitun eta oso konten neskaxtara eta neri ere iduritzen zitzaidan neska ere konten bazioela nerekin bainan bagindoazen oso gora Arantzan gora San Juantik eskuineko aldetik gora. Nik ez nion inori gaizkirik egin bainan hartu ziguten harrika eta hura alde batera eta ni bestera ta nik etorri behar izandu nuen geratu gabe etxera. Ez dut uste hareri deusere kalterik egin ziotenik noski, ni eskautu nintzelikan hareri ez zioten gehigo harririkan botako.

Bueno bestak ia utzi genituen alde batera bagenituen 24-25 urte ta pentsatu nuen orduan Ameriketara joan behar nuela. Jendea hasia zen Ameriketara joaten ez zen naizun guzia joaten, izan ere paperak egitea hagitz aunitz kostatzen zen, behar zen erreklamazio bat handikan eta erreklamazio horren egilea bilatu behar zen. Nik han nuen anaia ordurako eta harek bilatu ziten. Joan nintzen ordun Ameriketara. Dolarra zegoen oso alto eta pezeta berriz, baju jakina eta horregatikan dirua ateratzen zen oso ongi. Guk ordun harak joan ginelikan dolarra honak bidaltzen gunun eta horrela ateratzen zen oso ongi. Biajia oso bitxia izandu zen, gu ez ginen hemendikan Madrilera joan Parisera joan ginen eta Parisatikan hartu genuen hegazkina. Nik ez dakit nola izanen zen, hegazkina jaitsi zen eta atera ginen gu hegazkinatikan, besteak atera ziren eta gu ere atera ginen. Bizkaitar bat eta biek ginen gainera.

Atera ginen hegazkinatikan eta ez zigun inork sartzeko esaten, han ginen bagenituen txaketan solapan paratuk izen batzuk, plastiko txiki baten barruan eta guk uste genuen haiekin gidatuko ginela baino ez ziguten kasu handirik egiten eta bapatean hango azafata guztiak mugitu ziren ohiuka guk zer ote dute falta eta guk erakutsi genion ea guk solapan jartzekoa zen eta ala izaki, orduan deitu ziguten. Bilbotar harek Tomas Bilbao zuen izena eta ni berriz Manuel Aramburu. Orduantxe sartu ziguten hegazkinara eta gu sartu eta berehala itxi zituzten ateak.

Eraman ziguten "Nueva York"-era, ez ginen nahi ordurako iritsi. Gero "Nueva York"-etikan aintzineren berriz, joan ginen "Denver Coloradora". "Denver Coloradon" pixkat egon ginen, bi azafatak hartu eta eramane ziguten beste leku batera. Han lo pixkot egin gunun eta neri eman zidaten telefonoa ondora. Telefonoa jotzean hartzeko ez genion ulertzen baina pentsatzen dut hori esan nahiko zutela. Hari ziren haiek beraien hizkuntzarekin. Guk ere erdara ez genuen askorikan eta Ingles jakina bada. Horrela behintzat iritsi zen goiza bi edo hiru ordu lo egin genituen ta tinbrea jo zuenean esan nion "hola" eta atzera besteak esan zidaten "hello" . " Bueno jeiki beharko dugu hi" eta bizkaitar harekin ere erdaraz ari behar izandu nuen euskaraz ez genuen ulertzen Markina ingurukoa zen haren euskara eta nere euskara oso ezberdinak dira. Gero ikasi genuen, harek ere erdaraz hagitz gutxi zekien.

Horrela behintzat iritsi ginen, beste hegazkina hartu genuen "Denver Colorado"n eta joan ginen "Salt Lake City"-ra, Utah-ra, Estado de Utah-ra eta han Eibarko gurasoak zituen langile bat harrapatu genuen. Euskaraz ez zekien gizon gazte harek, erderaz berriz, ni baino hobekiago. Gizon honek lagundu zigun hegazkina hartzen Elkora eta despeditu zigun.

Aski gizon ona zen. Bidaia horrelakoa izandu zen gero Elkora iritsitakoan han bazen etxeko -andre bat guri itxaroten, andre haren sartu zigun bere karrua edo kotxea (guk kotxia erraten diogu haiek karrua esaten diote), eta eramane zigun hotelera. Hotelera gindoazenean galdetu ziten ea nongoa nintzen, lesakarra nintzela ni, o, lesakarrak bazirela hotel haretan. Ea banuen norbait seniderik eta baietz David Aramburu, ah, asko izautzen dut. Franzes kastakua zen andre hura eta gero handik aintzinerara moldatu ginen, hotel hartan baziren lesakarrak.

Bueno, ixtantin iritsi zen anaia arrantxotikan, ordun arrantxun ziren, gu hemendikan joan ginenak artzaitako joan ginen. Anaia etorri zenean arropak crosti eta herrian bueltatxo bat eman genuen ez zen herri handia orduan hiru lau bat mila biztandeko herria zen. Gero joan ginen arrantxora han bazen Iruña aldeko eta Aezkoako jende asko. Orduan ari ziren prestatzen artzaiak desiertura joateko karro kanpo erraten zaion beraien etxe hareri kamionari lotu eta horrela joaten zen kanperua eta artzaia berriz, 20 edo 22 ziento ardirekin. Horrela hari ziren han prestatzen udazken ingurua izango zen. Ordun uda guzian karro kanpuk abandonatuk egoten dire eta ari ziren haiek prestatzen eta pintatzen hainbeste artzai eta nagusi denak. Arrats hartan han bazen beste kantina bat "Li" esaten ziotena. Kantina hartan ziren Bizkaitarrak eta joan behar genuela kantina haretara nik ezetz ni nekatua nengoela, jakina da, horrelako bidaia egina gainera izugarrizko gripearekin nintzen. Bertzik baziren bost sei mutil ta gure anaia aurre aurrean eta joan ziren "Li" kantina hartara eta ni gelditu nintzen arrantxun lehendabiziko gaua han lo egiten nuena. Hasi ziren karresika gauz batzuk, ok zer ote dire txakurra? es nuen begirik itxi. Haiek etorri ziren goizeko biretan edo zerbezaz haseta eta galdetu nion zer dire orro horiek, ah horiek koioteak dira ez izutu horiekin, gauez horrela aritzen dira orruka. Nik ez nekien orru horiek edo saingik egiten zutenik.

Ni berriz, aire batean jarri eta ez nuen lorik haiek etorri bitartean, gero egin nuen bai lo. Gero ia hiru lau egunez egondu ginen elkarrekin arrantxun eta haiek joan ziren desiertoa goitik behera eta ni geratu nintzen bakarrik arrantxoan. Baziren orduan 200 bat ahare, zezenak ere bazituzten, behi kuadrila bat, zaldi pila bat eta haiek bazkatzen. Elurra bota zuen urte haretan handia baina beste lagunak esaten zuten egiten zuela eta atzera berriz dena kentzen zela. Gero negu hura ala pasatu nuen nik arrantxuan hotza galantarekin. Neronek ez nekien oso ongi erabiltzen arrantxoko kalefakzioa, abandonatuk ziren pixkat eta halaxe egondu nintzen erdi hotzak. orma izugarriak egiten bait zituen, han izaten zen erreka koxkor bat eta han edan behar izaten zuten ahareek eta horiek eta pikotzakin goiztan joan eta xehetzen nuen horma hura gero haiek ura edan behar baldin bazuten. Zezenak ere bai izaten ziren arrazakoak haiek bazkatzen. Baziren 20 eta gehixeago zezen haiekin ere ura horrelaxe prestatzen nuen horma hautsi pikotzakin, hotzak izugarriak egiten zituen.

Beni gero ia udaberria iritsitakoan ardiak hasi ziren behetik gorantz eta ardiak umatzeko tenorean iritsi behar zuten beraien tokietara beraien menditara, Grandiston, Karlin eta Red rod mendi onak genituen guk, ala esaten zuten denak han egiten genuen pariziuua dena.

Pariziuak egitean artzaiak jartzen ziren partida bakoitzarekin artzai bat bakarrik eta gero 4 de Julio 3 de Julio 5 de Julio joaten ginen Sierratara Ameriketara izaten den bestarik handienera eramaten gunun jateko pixkot eta hiru edo lau artzai juntatu eta egiten gunun besta pixkot loma zangutan Sierrara sartu aintzinin ezin baitzen Sierrara joan denbora bino lehenago. Bihar zuen 4 de Juliotik gora, bestenaz gobiernoak ez zuen uzten, hori oso kontrolatua zegoen. Uda guztia hantxe pasatzen genuen Septiembre erditik gotti etortzen ginen bildotxeekin betti.

Bildotxak ia hagitz ederrak ziren. Nik artzai egiten nuen sierraren izena, Segundo Cañon zen. Hango sierrak hemengo izenak zituzten adibidez: Miramar-eko sierra, Igeldo, Mejikanoen kanpo tokia, Harrizko mahaia eta geure tokiak izaten genituen ardiak begiratzeko.

Gero bildotsak saldu eta joaten ginen berriro ardiekin goruntz, berriz egoten zen hilabete bat edo goiko sierran, baino gero berriro prestatu behar zen jaisteko eta gero berriro arrantxotik behera bakoitza bere partidakin desiortora. Guk arrantxotik desiortora 300 mila izaten genitun beraz, bidaia luzea izaten zen. Egunero-egunero egiten genituen bost bat mila. Baina erraz ibiltzen ginen, izan ere zaldi onak genituen. Zaldi gainetikan manejatzen genuen ardia dena eta gero kanperoa joaten zen kamionakin eta karro kanpoarekin. Wyoming aldean ardikanpoa deitzen diote. Behera iritsitakoan han lasaiago egoten ginen.

Arrantxotik desiortora lehenengo kanpada Welo Cric errekan egiten genuen. Gero handikan kailejona pasatzen genuen, hori izaten da karretera normal bat eta ere pasatzen genuen nolabait. Handikan ailegatzen ginen Grandiston deitzen genionara Grandiston Cric-era (Cric erreka da). Hurrengoan ia ailegatzen ginen Kalinara eta horrela zen bide guzia, gero pasatzen gunun Parlasai Cric hura pasatuzkero ia Baigorren arrantxoa Baigorritar baten arrantxoa pasatuzkero ia handikan behera errexago eta lasaiago ibiltzen ginen. Baigorri horrek aita eta ama zituen Baigorritarrak ia gizona guk ezagutu genuenerako adintua zen. Han jaioa, euskaldun ederra. Gurekin ez zen oso ongi konpontzen ardiak bere terrenun ibiltzen genituen eta gobiernokoak ekarri zituen behin. Arrazoia zuen guk han errezegi uzten genituen ardiak azkarrago pasatu behar zuten. Haiek esaten zuten ardiak lehenago goiko ondotikan ibiltzen zirela, baina garaiak pixkat aldatuak ziren.

Hori pasatu ezkerro errazago izaten zen, irixten ginen New Past eta herri txiki bat ere bazen Auskin esaten zioten eta ailetzen ginen behera ia lasaiago ibiltzen ginen. Haietan baziren mina harriak ere, bazen bat baina eta Gaps eta minak hari ziren lanin oraindik oso fuerte. Handikan honatigo bazen beste bat esterago aunitzez Berliu deitzen zioten herri txiki bat zen eroria dena. Han harrapatu genuen hilerri txiki bat eta abizena zuen Bengoetxea, bakarrik bazen txamizua edo otearen gisako bat eta anaiari esan nion "ikus behar duk horixe nor den" abizen euskalduna Bizkaitarra zen gainera han jartzen zuen harrian baziren sail bat 10 edo 12. Gero nahi nun anaiak bertso batzuek jartzea edo eta kanposatua bilaka haritu nintzen baina ez nuen harrapatu, hainen toki handiak dira. Ez bait nuen utzi seinalerik horrelakotan utzi behar da estaka bat handia edo eta ez nuen horrelakorik utzi eta ez nuen harrapatu kanposantu txiki hura.

Bekondo hortan ibili ginen Lunitsome, Goldnike, Aionflat, flat da zelaia, hura toki maitia izaten gunun hagitz, han gustura ibiltzen ginen, bakarrik han ere elurra gehiegi ez genuen behar gutxiegi ere ez ardiak elurrarekin egiten baitzuten ura elurrik ez bagunun ez gunun urik eta ardiak elurra jaten zuten. Urte batean ez gunun batere elurrik izan eta hagitz gaizki ibili ginen. Nahiz eta gero moldatu ginen hagitz ongi, kamionak ekarri zituen nagusiak eta kamionakin ekartzen gunun minharriatikan egunero egunero ura. Zelaia zenez rekta txikia zuen egiteko nagusiak. Bakarrik eman zion gobernoak reita, reita da ba han bazkatzu zitzakeela ardiak izanen ziren 44-45 zientu erran zion gobernuak hura zela indiuna baino indiuk ez zutela behirikan eta han bazkatzu zitzatekeela ardiak.

Beno ba bota genituen ardiak harat eta nik ez dakit zer gertatu zen bigarren edo hirugarren egunean han ikusi genituen sekulako behi pila zekarratela indio batzuk eta bota zituzten zelai hartara zelai harek milaka mila bazitun oso luzea zen, goiti beheruntz Reno aldera. Horregatikan han egondu ginen hagitz ongi bakarrikan behiak ekarri zituztelikan behiak ez dutenez ardiekin egon nahi eskautu egin ziren. Gero indioen nagusia etorri zen eta gure karro kanpo hartan sartu zen eta gure anaiak ematen zion jatera eta edatera ardoa eta mozkortu zen berehala. Bertan geratu zen lo eta bertan igaro zituen hiru lau egun, eta ez zekien zein egunetan bizi ginen ere. Bo, gizarajoa! Ez zen gizon gaiztoa. Gero etorri ziren bertze lau gazte, haiek bai beldur pixka bat sartu ziguten. Haiek bai eman ziguten errietan oso fuerte beraien nagusiari. "Hauek hiri egiten haute nahi ditena, jatera ematen haute, mozkortzen haute" esan zien. "Bueno nik ezin dit ezer egin, nik emanen dit hauen nagusiaren helbidea eta ea zeurek egiten duzuen, nik ezin diat ezer egin eta, hauen nagusia hemendik hiru milatara bizi duk eta nik ezin diat ezer ere egin" esan zien nagusiak. Gero etortzen zen edozein egunetan gure arrantxora, eguna hantxe pasatuko zuen, mozkor-mozkor egingen zen, jan eta edan eta etxere joaten zen berriz.

Bueno han artzaiarentzat gauzarik txarrena izango zen hango sierra zangotan eta suge kaskabelak eta oso pozoingarriak esaten dute haiek hautsikitu ezkerro ez dagoela bizitzerik, beraz, pozoingarriak direla oso. Hura da artzai batek gogoratzen duena gehiena ibiltzen zarelikan han. Haizegoarekin eta bero handia denean ere bai denak beraien tokitik ateratzen baitire, bueno hemen sugeak bezala. Errez sumatzen zen izan ere suge kaskabelak abisatzen du eta zu ardiekin bazaude edo horrela ikusiko zenuen ardiak korro bat egiten eta hara hor bazen suge kaskabela baino guk ez genuen ikusi auniztan egiten.

Ez dakit ardiei hautsikirikan egiten zion egiten bazion ardia hilko zen eta listo. Han ardiari egin beharrin artzaiari eginezkero gauza larria izanen zen. Egun batean nik, goizean goiz haizegoa zen fuerte gainera eta argitu baino lehengo nere karpa edo tienda kanpainatik atera nintzen eta hartu nun nere atorra eta betik gora banoan. Bakarrik eguna heldu zen oso ederra eta egin nun atorra kendu ta utzi hantxe bidaxka bazterrean. Gero goitik beherakoan, igual baziren 10ak do 11k edo 12ak igual atorra hartu nuen txamizu gainetik bizkarrera eta bizkarrin barna ra ra ra suge kaskabela arraztaka eta bota nuen harrika segituan atorra. Klaro sugia zen txamizun behetik gora atorraren azpira sartua. Ez zen ezer ere gertatu makila banuen eta sugea makilaz jota hil nuen. Egun hartan gainera zaldia ez nuen hartua izan ere bidea oso txarra zen.

Bueno beti ez ginen ibiltzen lanean izaten genituen gure denbora libreak ere eta orduan aritzen ginen gu geure artean kantari. Anai bat izaten nuen David lehen esan nuen bezala oso afizionatua izaten zen oso majo aritzen zen bertsotan. Esan genion hareri "paratu behar dituzu bertso batzuek", orduan txapeldun atera zen Juan Ignacio Retegui lehendabiziko txapela harek ekarri zuen Nafarrora eta irabazi zion Atanori orduan haren gainin esan genion jartzeko bertso batzuk eta egin zituen. Gero bertso horik han izaten zen euskaldunen irratia edo ixtorio hori eta han aritzen zen organizadore bezala Jesus Lopategui bertsolari honen anaia eta harek eraman zuen anaia egun batean, eta bertso horiek kantatzeko irratira eta han aditzen ziren eta beste bertso aunitz ere bai.

David Aramburu euskaldun jatorra eta bertsolari planta onekoa ekarri dugu
botatzeko bertso batzuk guztientzako.

Nafarroari buruzko eta pilotari buruzko bertso batzuek dira:

Euskal herrian nola daukagun
joko ederra pelotan
batzuk aurrian jakindurian
besteak atzera bota
beste tresnarik usatu gabe
esku garbiakin jota
aurten Giputxak jokatu dituk
txapela nafarroan kontra

Nafarratarrak behar genduko
aurten urterik onena
batenbatek hau ez baluke nai
nik hartuko nuke pena
hemeretzirehun hirurogeita
gero bedetzigarrena
lehenengo aldiz naparruena
txapela ekartzen dena.

Sasoi onean jarrita zaude
pelotean erregi
esan laiteke hobeagorik
oraindik ez dela ateri.
Ameriketan esaten dute
Bai ona dala Retegui
hamalau tantoz aurreratzeko
holako gizon bateri.

Gipuzkua ta Bizkaiari zuk
sartu diozu epela
denan aurrian zauden gizona
aitzian utzi horrela .
Ona zerala ezagun dezu
galduko zenun bestela
sinis dezaten Nafarran ere
gizonak badiradela.

Ezker aire ta eskuin bolea
hainbeste pilota jorik
Ez zen pentsatzen inor bazula
zuk bezalako besorik.
Euskal herrian oraindik ez da
atera horrelakorik
gaur zure kontra esaten dunak
ez dauka buru askorik.

Danan tartetik onen onena
egin behar det berexi
hogeita sei urtetan dago
jarri da danan nagusi.
Euskal herriko pelotariak
zure menpean dagozi
zu egindako aitag eta amak
txaloak tuzte merezi.

Denan gailurran jarri artean
izan dezula hainbat neki
bainan guztiak menderatzeko
abildadia izaki.

Besten buruan zegoen txapela
jantzi dizute ederki
nere partetik urte askoan
orain zeurekin eduki.

Nere begiak ikusi nitun
azken partida aurrekidan
gogoan faltan ez nengon baino
ezin ailega denatan.

Txapela jartzen ez ikusia
geroztik nago penetan
baina ura ere ikusko nuke
ez banintz Ameriketari.

Beno bertso hauek horrekin dagoeneko bukatzen dira. Nere bizitzaren historiala hau izandu da, Euskal-Herrikoa eta gero Ameriketako artzai pasatu genituen urteetako.

Honekin ia, honerik bukaera eman nahi nioke. Beste bertso pare bat badakizkigu gure anaiak jarri zituenak gure auzoko ermita bateri. Haietxek kantatu ditugu.

Mila bederatzirehun
berrogeita hemezortzi
nolanahi ahaztutzerat
nik ezin dut utzi.
Xoko polit horretan
zeratenak bizi
nahi zaituztet agurtu
bertso eta guzi.

Ermitatxu horretaz
oroitu naiz orain
maite behar gendukela
gere burua hain.
Daukan iturri freskuk
iduridu txanpain
aupa oju! eginez
gora zagun Txakain.

1999-2000 IKasturte (DBH (3-4))

1. larria

Manuel Aramburu Amerikela

IZEN ABIZENAK: Enara Arrobarren Aramburu.

HELBIDEA: Biurrana auzoa; Huartea baserria

31770 LESAKA.

TEL: 948-637296

IKASTETXEA: Toki-Ona Institutoa.

3D.B.H. DIALEKTOLOGIA
ETNOLOGIA.